hazi
LANDA, ITSASERTZ ETA ELIKAGAIEN SUSTAPENA
DESARROLLO RURAL, LITORAL Y ALIMENTARIO

EUSKADI
BASQUE COUNTRY

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONÓMICO Y COMPETITIVIDAD

# 2017KO SUSTAPEN PLANA

## DOKUMENTU HONETAN:


Sarrera

Helburuak

Azoka instituzionalak

Taldean parte hartzeko beste azoka batzuk

Misio eta agenda komertzialak

Beste azoka mota batzuk

Parte hartzeko asmoa eta beste helmuga interesgarri batzuk

Parte hartzeko baldintzak

Enpresekin harremanetan egoko tresna

2017ko azoken egutegia


Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko Sailetik 2017rako aurreikusitako Sustapen Planaren gure proposamena igortzen dizuegu, aurrerapen gisa.

Dokumentuak, zehazki, **Euskadiko elikagaien industriaren 2017rako Sustapen Plana** de initzen du, hau da, 2017ko ekitaldian garatuko diren sustapen ekintzak zehazten ditu, 2016an abiarazitako ekimenak eta enpresa euskaldunek adierazitako proposamen, premia eta iritziak baloratuta.

# 2017Ko Sustapen Planaren helburuak

1. Euskadiko elikagaien industriako produktuak sustatzea.
2. Azken urteetan sustapen ekintzak egin izan diren merkatuetan presente egotea bultzatzea, sektoreak eskatutako formatu berri interesgarriak gehituta.
3. Euskal enpresei nazioartekora zabaltzen laguntzea.
4. Estatuan egon daitezkeen merkatu berriak irekitzea esportatzen hasi nahi duten enpresa txikientzat.

# Azoka instituzionalak estatuan eta nazioartean

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko Sailak, Haziren bitartez, estatuan eta nazioartean egiten diren elikagai eta edarien azoketara joaten jarraitzearen alde egiten du. Hauek dira azoka horiek:

1. **SIRHA**. Lyon 2017ko urtarrilaren21tik 25era.
2. **PROWEIN**. Dusseldorf. 2017ko martxoaren 19tik 21era.
3. **GOURMET**. Madril. 2017ko apirilaren 24tik 27ra.

# Taldean parte hartzeko beste azoka batzuk

Ondoren aipatzen diren azoketara ere joango gara, betiere izena ematen duten enpresa kopurua bertan parte hartzea justifikatzeko nahikoa bada.

Adierazitakoaren arabera, honako azoka hauetara joatea proposatzen da:

1. **FENAVIN**. Ciudad Real. 2017ko maiatzaren 9tik 11ra.
2. **ANUGA**. Colonia. 2017ko urriaren 7tik 11ra.
3. **NATEXPO**. Paris. 2017ko urriaren 22tik 24era.
4. **CONXEMAR**. Vigo. 2017ko urria. Oraindik egunak zehazteke daude.
5. **SEAFOOD EXPO**. Bruselas. 2017ko apirilaren 25etik 27ra.

# Misio eta agenda
## komertzialak

Laister, proposaturiko merkatu ezberdinetan , misio komertzial multisektorialak zintzilikatuko dira ondorengo web orrian: www.euskadi.eus/elikagaiensustapena

# Beste azoka batzuk

1. **SAN SEBASTIÁN GASTRONOMIKA**. Donostia. 2017ko urria.
2. **GUSTOKO.** Bilbo. Azoka hau Euskadin egiaztatutako kalitatea duten produktuak dituzten enpresentzat izango da. Azoka azken kontsumitzailearentzat irekita dago, eta profesionalentzako jarduerak eskaintzen ditu.

# Parte hartzeko asmoa
## eta beste helmuga interesgarri batzuk

- Garrantzitsua da jakitea ea enpresek azoka horietara joateko asmorik duten, horrela kontratatu beharreko metro karratu kopurua aurreikusi dezakegu eta.
- Seafood azokaren kasuan, aurretik esan den moduan, ezinbestekoa da jakitea irailaren 4a baino lehen zenbat enpresak duten joateko asmoa.
- Garrantzitsua da, halaber, ea azoka edo helmuga komertzial hauez gain beste ekitaldi edo herrialderik interesatzen zaizuen eta zuen plan komertzialetan lehentasunezkotzat sartu duzuen.

**Atal honekin zerikusia duten ekarpen guztiak ondorengo helbidera bidali beharko dira uztailak 29a baino lehen: calimentaria@euskadi.eus**

# Parte hartzeko baldintzak

Egoitza soziala Euskal Herrian eduki eta Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko Sailaren menpeko Elikagaien Industrien Erregistroan inskribatuta dauden enpresa **ekoizleek** baino ezingo dute jarduera hauetan parte hartu. Azoketan **Euskal Herrian fabrikatutako produktuak** baino ezingo dira erakutsi. Ezin izango da, inola ere, beste Autonomia Erkidego batzuetako produktuak aipatu, ezta aurkeztu ere.

Hona hemen 2016ko sustapen planaren dokumentu honetan planteatzen diren ekintzetan parte hartzeak dakarren kostua finantzatzeko diru laguntzetarako egingo den sailkapena.

**1. Mota**
NEURRI HANDIENEAN Euskadiko lehengaiekin hornitzen diren enpresak. **Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza %70ekoa izango da enpresa horientzat.**

**2. Mota**
Euskadin behar duten lehen sektoreko produkziorik egon ez eta Euskaditik kanpoko lehengaiak erabiltzen dituzten enpresak. **Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza %50ekoa izango da enpresa horientzat.**

**3. Mota**
NEURRI HANDIENEAN Euskadiko lehengaiez hornitzen EZ diren enpresei, nahiz eta tokiko lehen mailako produkzioa egon, **Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza %30ekoa izango da enpresa horientzat**.

# Enpresekin harremanetan egoteko tresna

2017ko urterako proposatzen diren jarduerekin lotura duten jakinarazpen guztiak eskuratzeko esteka hau erabili daiteke: **www.euskadi.net/promocionalimentaria**. Helbide horretan azoka bakoitzaren deialdia zein egoeratan dagoen eta deialdi bakoitzari dagozkion izena emateko epeak azaltzen dira.

Sinadura: **PELI MANTEROLA**

*Eusko Jaurlaritzako Kalitate eta Elikagai Industrietako Zuzendaria*
*Director de Calidad e Industrias Alimentarias del Gobierno Vasco*

EUSKADI
BASQUE COUNTRY

# 2017ko azoken egutegia

**urtarrila**

| l | m | m | j | v | s | d |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | 1 |
| 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 |
| 9 | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 |
| 16 | 17 | 18 | 19 | 20 | 21 | 22 |
| 23 | 24 | 25 | 26 | 27 | 28 | 29 |
| 30 | 31 | | | | | |

**otsaila**

| l | m | m | j | v | s | d |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 |
| 13 | 14 | 15 | 16 | 17 | 18 | 19 |
| 20 | 21 | 22 | 23 | 24 | 25 | 26 |
| 27 | 28 | | | | | |

**martxoa**

| l | m | m | j | v | s | d |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 |
| 13 | 14 | 15 | 16 | 17 | 18 | 19 |
| 20 | 21 | 22 | 23 | 24 | 25 | 26 |
| 27 | 28 | 29 | 30 | 31 | | |

SIRHA

PROWEIN

**apirila**

| l | m | m | j | v | s | d |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | 1 | 2 |
| 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 |
| 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 |
| 17 | 18 | 19 | 20 | 21 | 22 | 23 |
| 24 | 25 | 26 | 27 | 28 | 29 | 30 |

**maitza**

| l | m | m | j | v | s | d |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 |
| 8 | 9 | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 |
| 15 | 16 | 17 | 18 | 19 | 20 | 21 |
| 22 | 23 | 24 | 25 | 26 | 27 | 28 |
| 29 | 30 | 31 | | | | |

**ekaina**

| l | m | m | j | v | s | d |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | 1 | 2 | 3 | 4 |
| 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 |
| 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 | 18 |
| 19 | 20 | 21 | 22 | 23 | 24 | 25 |
| 26 | 27 | 28 | 29 | 30 | | |

GOURMETS
SEAFOOD

FENAVIN

**uztaila**

| l | m | m | j | v | s | d |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | 1 | 2 |
| 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 |
| 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 |
| 17 | 18 | 19 | 20 | 21 | 22 | 23 |
| 24 | 25 | 26 | 27 | 28 | 29 | 30 |
| 31 | | | | | | |

**abuztua**

| l | m | m | j | v | s | d |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 |
| 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 | 13 |
| 14 | 15 | 16 | 17 | 18 | 19 | 20 |
| 21 | 22 | 23 | 24 | 25 | 26 | 27 |
| 28 | 29 | 30 | 31 | | | |

**iraila**

| l | m | m | j | v | s | d |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | 1 | 2 | 3 |
| 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 |
| 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |
| 18 | 19 | 20 | 21 | 22 | 23 | 24 |
| 25 | 26 | 27 | 28 | 29 | 30 | |

**urria**

| l | m | m | j | j | s | d |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | 1 |
| 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 |
| 9 | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 |
| 16 | 17 | 18 | 19 | 20 | 21 | 22 |
| 23 | 24 | 25 | 26 | 27 | 28 | 29 |
| 30 | 31 | | | | | |

**azaroa**

| l | m | m | j | v | s | d |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 |
| 13 | 14 | 15 | 16 | 17 | 18 | 19 |
| 20 | 21 | 22 | 23 | 24 | 25 | 26 |
| 27 | 28 | 29 | 30 | | | |

**abendua**

| l | m | m | j | v | s | d |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | 1 | 2 | 3 |
| 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 |
| 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |
| 18 | 19 | 20 | 21 | 22 | 23 | 24 |
| 25 | 26 | 27 | 28 | 29 | 30 | 31 |

GASTRONOMIKA
ANUGA
NATEXPO
CONXEMAR